

altza

Dibertsio berria Arriyan

Abuztuko lasaitasuna

Iraila iritsi eta altzatar guztiek berriro ere urte osoko martxa hartu beharko dute. Normaltasunera itzultzen ari da auzoa abuztuko atsedenaldira atzean utzi eta gero.

Abuztua izaten da, altzatarrek oporretarako aukeratzeko duten hila. Jendea bere herrietara itzultzen da, uztaila amaierarako erdi hutsik egoten da auzoa.

Bertan gelditzen direnentzat berriz, lasaitasuna da nagusi. Autobusak hutsak ibiltzen dira eserlekua aurkitzeko arazorik gabe, kotxea hartuz gero ere, auzo inguruan bidea oso libre izaten da. Soinu gutxiago entzuten da eta gelditzen diren fabriketako keek ere jai hartzen dute hilabete honetan.

Arriya parkea duela urte batzuekin bazuten ere, oraindik guztiz finkatu gabeko parkea dugu. Altzaren igoeran kokatutako ingurune berde honetako metro karratu ugari dauzka baina espazioa ondo betetzea zaila delarudi. Eserlekuak eta hainbat zuhaitz hasieratik jarri zituzten, baina Altzak berdegune askorik ez duela kontutan izanda, bertako biztanleek haurrentzako jokuak eskatu zituzten.

Esan eta egin, aurtengo udaran Arriya parkeko goiko aldean hondarra bota dute eta oso joku originala, eta era berean, praktikoa jarri dute. Hasieran helduek jokua nola den ondo ulertzen ez badugu ere haurren imaginazioak berehala erakutsiko digu zer den eta zertarako den soka gorriez betetako jokua. Esan bezala, jokua gorria da eta sokaz eginikoa, haurrek



Argazkia: Imanol

bertan salto, eskalada zein beste motatako jolasak inprobisatzen dituzte.

Bien bitartean gurasaok lasai egon daitezke, erorketa harriskuen aurka hondarra jarri baitute behealdean.

Dena den, oraindik Arriya ez dago guztiz bukatuta, behar bada piskanaka haurrek gauza berri gehiago aurkitu ahal izango dituzte.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: [391267])



NAUTILUS



TABERNA

Tfnoa.: 400491



- Elekrika Blend Sistema
- Makilaia Iraunkorra
- Azkazal Labratuak
- Betilen Tindaketa...

• Zedro plaza 2 Tfnoa.: 392051
• Nagusia 27 LASARTE Tfnoa.: 371891

Zure auzoan bertan duzu aukera

bidebieta
TINDATEGIA
Lehorreko garbiketa

Zumardi pasealekua, 32 % 39 41 86

Alberro
Gizonezko moda

Zumardi pasealekua, 20
Tfnoa.: 399078 DONOSTIA



Zedro plaza 2
% 39 99 52